ZIZURKILGO UDALA

2022IKIE0001

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA / PLIEGO DE CLAUSULAS TECNICAS

I. KONTRATUAREN XEDEA / OBJETO DEL CONTRATO 2

II. KONTRATUAREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DEL CONTRATO 3

III. KONTRATUAREN EPEA / PLAZO DEL CONTRATO 4

IV. TEKNIKARIAK IZENDATZEA / NOMBRAMIENTO DE TECNICOS 5

V. AZPIKONTRATAK ETA HORNITZAILEAK / SUBCONTRATAS Y SUMINISTRADORES 6

VI. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK / PERMISOS Y LICENCIAS 6

VII. IKUSKAPENAK ETA BISITAK / INSPECCIONES Y VISITAS 7

VIII. BALIABIDE LAGUNGARRIAK / MEDIOS AUXILIARES 7

IX. LAN EREMUAREN ANTOLAKETA / ORGANIZACION DE LA ZONA DE TRABAJO 8

X. AZPIEGITURAK / INFRAESTRUCTURAS 9

XI. SEGURTASUNA ETA OSASUNA / SEGURIDAD Y SALUD 10

XII. HONDAKINEN KUDEAKETA / GESTION DE RESIDUOS 10

ZIZURKILGO UDALA

2022IKIE0001

ZIZURKILGO BULANDEGI BIDEKO A.1 ETA A.2 EREMUAK BERRURBANIZATZEA (IRISGARRITASUN PLANAREN ZATIKAKO EGUNERATZEA)KO OBRAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATAZEKO BALFINTZA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS PARA LA CONTRATACION MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LAS OBRAS DE REURBANIZACION DEL AMBITO A.1 Y A.2 DE BULANDEGI BIDEA DE ZIZURKIL (ACTUALIZACION PARCIAL DEL PLAN DE ACCESIBILIDAD)**

I. KONTRATUAREN XEDEA	**I. OBJETO DEL CONTRATO**
Kontratu honen xedea jarraian aipatutako proiektuan jasotako esku-hartzea gauzatzea da, Zizurkilgo Udaleko Zerbitzu Teknikoek idatzitako pleguen arabera gauzatuko dena.	El objeto del presente contrato es la realización de la intervención contemplada en el proyecto que se indica a continuación y que se llevará a cabo de acuerdo con los pliegos redactados por los Servicios Técnicos del Ayuntamiento de Zizurkil.
Proiektua: ZIZURKILEN IRISGARRITASUN PLANAREN ZATIKAKO EGUNERATZEA. BULADEGI BIDEA. A EREMUA. - Idazlea: ERLAITZA BULEGO TEKNIKOA - Data: 2021 IRAILA - Telefonoa: 688 85 58 64 - Korreoa: jonizagirreagirre@outlook.com	Proyecto: ACTUALIZACION PARCIAL DEL PLAN DE ACCESIBILIDAD DE ZIZURKIL. BULANDEGI BIDEA. AMBITO A. - Redactor: ERLAITZA BULEGO TEKNIKOA - Fecha: SEPTIEMBRE 2021 - Teléfono: 688 85 58 64 - Correo: jonizagirreagirre@outlook.com
Kontratu honek helburu duen esku-hartzea ondorengo eraikinean/eremuan kokatzen da: - Kokapena: BULANDEGI BIDEA - Azalera: 2.500 m2	La intervención objeto del presente contrato se enmarca en el siguiente edificio/ámbito: - Situación: BULANDEGI BIDEA - Área: 2.500 m2
Esku-hartzea aipatutako eremura mugatu da, azpiegiturak egoki ebazteko edo bestelako lan gehigarriak egiteko esku-hartze eremua perimetro honetatik kanpo hedatu daitekeelarik.	La intervención se circunscribe al ámbito señalado, pudiendo extenderse el ámbito de intervención para la correcta resolución de infraestructuras u otras obras adicionales fuera de este perímetro.
Dagokion proiektuan jasotzen den moduan, esku-hartzean egin beharreko lan nagusiak ondorengoak dira:	Tal y como se recoge en el proyecto correspondiente, los principales trabajos a realizar en la intervención son los siguientes:

- Hiri altzariak kentzea eta dauden zoladurak eraistea. - Zerbitzu eta azpiegitura sareak egokitzea edo berritzea. - Oinezkoentzako eremuen profila hobetzea, ibilbide irisgarrietara egokitzeko. - Esku hartutako eremua zolatzea eta hiri altzariak jartzea.	- Retirada de mobiliario urbano y demolición de los pavimentos existentes. - Adecuación o renovación de las redes de servicio e infraestructura. - Mejora de perfil de las zonas peatonales para adecuar a itinerarios accesibles. - Pavimentación del área intervenida y colocación de mobiliario urbano.
II. KONTRATUAREN AURREKONTUA	**II. PRESUPUESTO DEL CONTRATO**
Baldintza teknikoen agiri honetan jasotako proiektua gauzatzeko aurrekontua ondorengoa izango da: - Kontrata aurrekontua: 561.583,82 € - BEZ: 117.932,60 € - Aurrekontu osoa: 679.516,42 €	El presupuesto de ejecución del proyecto contemplado en el presente Pliego de Prescripciones Técnicas será el siguiente: - Presupuesto de contrata: 561.583,82 € - IVA: 117.932,60 € - Presupuesto total: 679.516,42 €
Lizitatzailearen eskaintza ekonomikoan ez da aleko prezioen zerrenda aurkeztu beharko, edozein kasutan, lizitatzaileak aurrekontuko prezioa berdinak eskaintzen dituela ulertuko da, eskaintza orokorrean eskaini duen beherapenaren ehunekoa aplikatuko zaiolarik aleko prezio bakoitzari.	En la oferta económica del licitador no deberá incluirá una relación de precios unitarios, en todo caso se entenderá que el licitador ofrece los mismos precios presupuestarios, aplicándose a cada uno de ellos el porcentaje de descuento ofertado en la oferta general.
Lan osoak jasotzen dituzten partidak edo "partida alzada" deiturikoak salbuetsiko dira ehuneko beherapenetik, zeinetan prezioak proiektuko kopuru berean mantenduko diren. Kontuan izan beharko da lan hauek unitate bakar moduan baloratuko direla eta ez dagokion obra neurketaren emaitzaren arabera.	Se exceptúan del porcentaje de descuento las partidas que incluyan trabajos completos o las denominadas "partidas alzadas", en las que los precios se mantengan en el mismo importe que el proyecto. Habrá que tener en cuenta que estos trabajos se valorarán como una sola unidad y no en función del resultado de la medición de obra correspondiente.
Eskaintza ekonomikoan proiektuko partidak eta hauen neurketak mantendu beharko dira. Hauetan akatsen bat identifikatzen bada Memoria Teknikoan aipatu beharko da, baina ezingo dira proposamen ekonomikoan jaso.	En la oferta económica se deberán mantener las partidas del proyecto y sus mediciones. En el caso de que se identifique algún error en los mismos se deberá mencionar en la Memoria Técnica, pero no se podrán incluir en la propuesta económica.

Aurrekontuko partida bakoitzaren aleko prezioak beharrezko diren baliabide lagungarriak, garraio kostuak, segurtasun neurriak, etab. jasoko ditu gai horietarako partida jakin bat ez bada jasotzen aurrekontuan.	El precio unitario de cada partida presupuestaria incluirá los recursos auxiliares necesarios, los costes de transporte, las medidas de seguridad, etc., en el caso de que no se contemple en el presupuesto una partida concreta para estas materias.
Gauzatutako lanen ordainketa obra zuzendari fakultatiboak emango dituen hileroko ziurtagirien arabera egingo da, hauek Udal Teknikarien oniritzia jaso beharko dutelarik.	El pago de los trabajos realizados se realizará de acuerdo con las certificaciones mensuales que expedirá el Director Facultativo de la obra, las cuales deberán recibir el visto bueno de los Técnicos Municipales.
III. KONTRATUAREN EPEA	**III. PLAZO DEL CONTRATO**
Esleipen honetako lanak egiteko epea, guztira, ondoren jasotakoa izango da, zuinketa akta sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasiko dena: - Kontratuaren epea: 9 HILABETE - Hasiera data: 2022-09-26 - Egutegi eskakizunak: X	El plazo total de ejecución de los trabajos objeto de esta adjudicación será el siguiente, a contar desde el día siguiente a la firma del acta de replanteo: - Plazo del contrato: 9 MESES - Fecha de inicio: 26-09-2022 - Requisitos de calendario: X
Proposatutako epeak eremuaren eta lanen koordinazio egokia izango du helburu, kasuan kasu aldaketak eman daitezkeelarik beti ere Udal Zerbitzuen oniritzia izan ezkero.	El plazo propuesto tendrá por objeto la adecuada coordinación del ámbito y de los trabajos, pudiéndose introducir modificaciones en cada caso siempre que cuente con el visto bueno de los Servicios Municipales.
Dena den, zuinketa akta sinatu aurretik epe hau adostu edo/eta egokitu ahalko da. Aldaketa honek ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango, egokitze txikiak izango direlarik eta exekuzio epe orokorra aldatuko ez duelarik.	No obstante, antes de la firma del acta de replanteo se podrá acordar y/o ajustar este plazo. Esta modificación no dará derecho a indemnización alguna, que consistirá en pequeñas adaptaciones y no alterará el plazo general de ejecución.
Esleipenean esku-hartzea gauzatzeko egutegi edo kronograma bat proposatu beharko da; bertan hasiera data, lan nagusi guztien exekuzio epeak, elementu nagusien fabrikazio edo/eta hornidura epeak, eta amaiera data jasoko dira, baita jai/opor egunak, edo antzeko	En la adjudicación se deberá proponer un calendario o cronograma de ejecución de la intervención en el que conste la fecha de inicio, los plazos de ejecución de todas las obras principales, los plazos de fabricación y/o suministro de los elementos principales, y la fecha de finalización, así como los días

data/epe esanguratsuak ere.	festivos/vacacionales, o fechas/plazos significativos similares.
Esku-hartzea gauzatzen den bitartean kontratua iraungitzea erabaki ezkero, dagokion aktan jasoko da, eta epea iraungi eta berriro hasteko akordioa adostuko da.	Si durante la intervención se acordara la extinción del contrato, se hará constar en el acta correspondiente y se acordará la caducidad del plazo y su reanudación.
Baldintza teknikoen agiri honetan jasotakoa epea partzial edo osoa pasa ezkero, Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen legeko 193 eta 195 artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo da.	El presente Pliego de Prescripciones Técnicas se regirá, en todo o en parte, por lo dispuesto en los artículos 193 y 195 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
IV. TEKNIKARIAK IZENDATZEA	**IV. NOMBRAMIENTO DE TECNICOS**
Esleipen proposamenean esku-hartzean zuzenean parte hartuko duten teknikariak izendatu beharko dira eta hauen antolaketa edo organigrama aurkeztu beharko da. Zuzenean parte hartuko ez duten teknikariak, administrariak edo bestelako langileak ez dira izendatu beharko.	En la propuesta de adjudicación deberán designarse los técnicos que intervendrán directamente en la intervención y presentar la organización u organigrama de los mismos. No será necesaria la designación de personal técnico, administrativo u otro personal que no intervenga directamente.
Esleipendun enpresa ordezkatuko duen teknikaria Obra Burua izango da, hau izango delarik Udal Teknikariekin harremanetarako pertsona. Dagokion lana gauzatzeko titulazioa, esperientzia eta gaitasun nahikoak izango ditu, esku-hartzearen konplexutasunaren arabera. Lan ordutegian uneoro lokalizatzeko moduan egon beharko du, Obra Arduradun edo Udal Teknikarien beharrei berehala erantzuteko moduan.	El técnico que sustituirá a la empresa adjudicataria será el Jefe de Obra, que será la persona de contacto con los Técnicos Municipales. Poseerá titulación, experiencia y aptitudes suficientes para el desempeño del trabajo correspondiente, en función de la complejidad de la intervención. Deberá estar localizable en todo momento durante el horario de trabajo, respondiendo de forma inmediata a las necesidades de los Responsables de Obra o Técnicos Municipales.
Obra Buruak eta Obra Arduradunak euskara ezagutza nahikoa izango dute esku-hartzeak iraun bitartean Udal Zerbitzua, bestelako kanpoko teknikariak edo herritarrak euskaraz hartzeko. Udal Zerbitzuek Euskara maila justifikatzen duten ziurtagiria eskatu ahal izango dute.	El Jefe de Obra y el Responsable de Obra tendrán conocimientos suficientes de euskera durante la intervención para recibir en euskera al Servicio Municipal, a otros técnicos externos o a la ciudadanía. Los Servicios Municipales podrán solicitar el certificado que justifique el nivel de Euskera.

Esku-hartze epearen barruan teknikari aldaketa bat eman behar izan ezkero, honek aurreko teknikariaren profil bera edo hobea eman beharko du, beti ere Udal Zerbitzuen oniritzia jaso beharko duelarik lehendabizi.	En caso de tener que realizar un cambio de técnico dentro del plazo de intervención, éste deberá dar el mismo o mejor perfil que el anterior técnico, siempre con el visto bueno previo de los Servicios Municipales.
Esleipendun enpresa eta Udalaren idatzizko harremana ere (kontratuak, fakturak, etab.) euskaraz izango da, kasuan kasu salbuespenak egin eta gaztelerazko dokumentuak edo idatziak jasoko badira ere.	La empresa adjudicataria y la relación escrita del Ayuntamiento (contratos, facturas, etc.) será también en euskera, sin perjuicio de las excepciones que en su caso procedan y de la recepción de documentos o escritos en castellano.
V. AZPIKONTRATAK ETA HORNITZAILEAK	**V. SUBCONTRATAS Y SUMINISTRADORES**
Esleipenean azpikontratatzea aurreikusten diren enpresa nagusiak identifikatu beharko dira, hauek gauzatuko dituzten lanak azalduz eta aurrekontuaren zenbatekoa eta ehunekoa adieraziz. Beti ere, enpresa ezagunak, ibilbide egokia dutenak eta beharrezko bermeak dituztenak izan beharko dute. Udal teknikariek bere onespena eman beharko diote.	Se deberán identificar las principales empresas que se prevén subcontratar en la adjudicación, indicando los trabajos a ejecutar por las mismas, así como el importe y porcentaje del presupuesto. En todo caso, deberán ser empresas conocidas, con trayectoria adecuada y con las garantías necesarias. Los técnicos municipales deberán darle su aprobación.
Hornitzaileei dagokionez ere, esleipenean hornitzaile nagusiak identifikatu beharko dira, hornituko dituzten material nagusiak identifikatuz. Udal Teknikariek fitxa edo dokumentazioa teknikoa eskatu ahal izango dute produktu edo materialen egokitasuna aztertzeko, eskakizunak betetzen ez direla ondorioztatu ezkero alde batera utzi ditzaketelarik.	En el caso de los proveedores, la asignación deberá incluir la identificación de los principales proveedores, identificando los principales materiales a suministrar. Los Técnicos Municipales podrán solicitar ficha o documentación técnica para analizar la idoneidad de los productos o materiales, pudiendo prescindir de ellos en caso de que se deduzcan incumplimientos de requisitos.
Esleipeneko memorian zerrendatutako azpikontrata edo hornitzaile nagusiak aldatu nahiko balira esku-hartzean zehar, Udal Teknikariei jakinarazi beharko zaie hauek bere onespena eman dezaten.	Si durante la intervención se pretendiera modificar las subcontratas o principales proveedores relacionados en la memoria de adjudicación, deberá comunicarse a los Técnicos Municipales para su aprobación.
VI. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK	**VI. PERMISOS Y LICENCIAS**
Esleipendun enpresaren ardura eta zeregina izango da esku-hartzea gauzatzeko beharrezko	Corresponderá a la empresa adjudicataria la gestión de los permisos y licencias necesarios

diren baimen eta lizentziak gestionatzea. Udal mailako baimen eta lizentziak gestionatzea edo bestelako administrazio edo enpresenak ere esleipendun enpresaren ardura izango da.	para llevar a cabo la intervención. También será responsabilidad de la empresa adjudicataria la gestión de los permisos y licencias municipales o de otras administraciones o empresas.
Kasu konkretuetan, eskabide formalak Udalak egingo dituela adostuko da, eta gestio osoa edo partziala bere gain hartuko dute Udal Teknikariek.	En casos concretos, se acordará que las solicitudes formales serán realizadas por el Ayuntamiento, asumiendo los Técnicos Municipales la gestión total o parcial.
Baimen eta lizentzia horiek lortzeko tasa, fidantza edo bestelako gastu ekonomiko guztiak esleipendun enpresaren kontura joango dira, honek esku-hartzearen aurrekontuan eraginik izango ez duelarik.	Todas las tasas, fianzas u otros gastos económicos para la obtención de dichas autorizaciones y licencias correrán a cargo de la empresa adjudicataria, sin que ello afecte al presupuesto de la intervención.
VII. IKUSKAPENAK ETA BISITAK	**VII. INSPECCIONES Y VISITAS**
Ikuskapenak eta bisitak libreak izango dira momentu oro Udal Teknikarientzat, aurrez Obra Buruari jakinarazi beharrik izan gabe.	Las inspecciones y visitas serán libres en todo momento para los Técnicos Municipales, sin necesidad de comunicación previa al Jefe de Obra.
Adostutako obra bisita gutxienez astean behin gauzatuko da, Udal Teknikariek zehaztuko dutelarik eguna eta ordua. Bisita horretan, gutxienez, Udal Teknikari bat, Obra Burua eta Obra Arduraduna egongo dira.	La visita de obra acordada se realizará, como mínimo, una vez a la semana, fijándose día y hora por los Técnicos Municipales. En dicha visita estará presente, al menos, un Técnico Municipal, el Jefe de Obra y el Responsable de Obra.
VIII. BALIABIDE LAGUNGARRIAK	**VIII. MEDIOS AUXILIARES**
Jarraian aipatutako babes neurria guztiak esleipendun enpresako obra zuzendarik edo segurtasun koordinatzaileak obra hasi aurretik jakinaraziko dizkie udal teknikariei, hauek bere onespena eman diezaioten proposamenari. Udal teknikariek beharrezkoa ikusiko balute neurri osagarriak eskatu ditzakete, honek aurrekontuan eraginik izango ez duelarik.	Todas las medidas de protección señaladas a continuación serán comunicadas por el Director de Obra o Coordinador de Seguridad de la empresa adjudicataria a los técnicos municipales antes del inicio de la obra, a fin de que éstos puedan dar su conformidad a la propuesta. Si los técnicos municipales lo consideraran necesario, pueden solicitar medidas complementarias, sin que esto afecte al presupuesto.

Enpresa esleitua behartua dago beharrezko makinaria eta baliabide lagungarriak obrara eramatera, hauek beti beharrezko dokumentazioa, ziurtagiriak, homologazioak, etab. izango dituztelarik. Azterketa teknikoak eta beharrezko mantenu lanak egoki eginak izan beharko dituzte, dagokion dokumentazio bidez ziurtatu ahalko delarik.	La empresa adjudicataria está obligada a llevar a la obra la maquinaria y medios auxiliares necesarios, que contarán siempre con la documentación necesaria, certificados, homologaciones, etc. Las revisiones técnicas y las operaciones de mantenimiento necesarias deberán haber sido realizadas adecuadamente, pudiéndose certificar mediante la documentación correspondiente.
Obrako langileak beharrezko babes neurri guztiak eskura izan beharko dituzte, formazioa egokia izateaz gain eta dagokion teknikariak babes neurri guztiak ondo betetzen direla ziurtatu beharko du momentu oro.	El personal de obra deberá disponer de todas las medidas de protección necesarias, además de que la formación sea adecuada y el técnico correspondiente deberá asegurar en todo momento el cumplimiento de todas las medidas de protección.
IX. LAN EREMUAREN ANTOLKETA	**IX. ORGANIZACION DE ZONA DE TRABAJO**
Obra eremua behar bezala mugatuko da, mugaketa hori horretarako egokiak diren baliabideekin egingo delarik, hesiak, mailak, sareak, etab. Mugaketa honek obra eremura hirugarren pertsonak sartze ekiditeko balioko du, baita obra eremuaren kanpoaldea obrako eraginetatik babesteko ere. Ondorioz, segurtasun neurri guztiak bete beharko ditu, erabiltzen diren baliabideak erabilera horretarako egokiak edo/eta homologatuak izango direlarik.	La delimitación de la zona de obra se realizará con los medios adecuados para ello, vallas, escalones, redes, etc. Esta delimitación servirá para evitar el acceso de terceras personas a la zona de obra, así como para proteger el exterior de la zona de obra de las afecciones de la obra. En consecuencia, deberá cumplir todas las medidas de seguridad, siendo los medios utilizados adecuados y/o homologados para dicho uso.
Obra perimetroko ibilbide guztiak (oinezkoak, ibilgailuenak, garraio publikoarenak, etab. behar bezala desbideratu eta babestuko dira, momentu oro hirugarren pertsonen segurtasuna eta irisgarritasuna bermatuko delarik. Horretarako, beharrezko seinale, semaforo edo antzeko neurri guztiak hartuko dira, beti segurtasun neurri guztiak egoki betez.	Todos los recorridos perimetrales de obra (peatones, vehículos, transporte público, etc.) serán debidamente desviados y protegidos, garantizando en todo momento la seguridad y accesibilidad de terceras personas. A tal efecto, se adoptarán todas las señales, semáforos o medidas análogas necesarias, siempre que se cumplan adecuadamente todas las medidas de seguridad.
Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute	Todos los recorridos perimetrales de obra (peatones, vehículos, transporte público, etc.) serán debidamente desviados y protegidos,

ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezu ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz, betiere Udal Teknikariekin aldez aurretik adostua.	garantizando en todo momento la seguridad y accesibilidad de terceras personas. A tal efecto, se adoptarán todas las señales, semáforos o medidas análogas necesarias, siempre que se cumplan adecuadamente todas las medidas de seguridad.
Seinaleztapen sistema honek erabat parekidea izan beharko du, debekatua geratuko delarik mezu sexistak, arrazistak, homofoboa edo antzekoa dutenik. Udal Teknikariek seinaleztapen hau aldatu edo egokitzeko eskatuko dute parekidea ez den mezuren bat ulertu daitekeela identifikatzen badute.	Este sistema de señalización deberá ser totalmente paritario, quedando prohibido que contengan mensajes sexistas, racistas, homofobias o similares. Los Técnicos Municipales solicitarán que se modifique o adapte esta señalización si identifican que se puede entender algún mensaje que no sea paritario.
Obrak fase bakoitzak behar bezala definituko da krokis moduan, esku-hartze eremuaren mugaketa eta beharrezko desbideratzeak egoki jasoz. Proposamen hauek Udal Teknikarien onespena jaso beharko dute.	Las obras se definirán adecuadamente en forma de croquis por cada fase, recogiendo adecuadamente la delimitación del área de intervención y los desvíos necesarios. Estas propuestas deberán contar con la aprobación de los Técnicos Municipales.
X. AZPIEGITURAK	**X. INFRAESTRUCTURAS**
Proiektuan dagokion azpiegiturak egin edo berrituko dira, hauek egungo sareetara beharko dituzten konexioak gauzatuz.	En el proyecto se ejecutarán o renovarán las infraestructuras correspondientes, ejecutando las conexiones que éstas necesiten a las redes actuales.
Esku-hartzea gauzatzeko egungo sareren bat edo honen elementu konkretu bat zerbitzuz kanpo utzi edo kendu behar bada, lanen parte izango da hau berregitea edo berriz zerbitzuan jartzea. Lan hauek egiteko nahitaezkoa izango da Udal Teknikarien onespena.	En el caso de que para llevar a cabo la intervención sea necesario dejar fuera de servicio o eliminar alguna red actual o un elemento concreto de la misma, formará parte de los trabajos su reconstrucción o puesta en servicio. Para la realización de estos trabajos será preceptiva la aprobación de los Técnicos Municipales.
Epe jakin batean azpiegituraren bat eten edo desbideratu behar bada, sareak funtzionamenduan jarraitu dezan hau bikoiztu beharko da, lan hauek aurrekontuan eraginik izango ez dutelarik.	En el caso de que en un plazo determinado haya que suspender o desviar alguna infraestructura, para que la red siga funcionando deberá duplicarse, sin que estos trabajos tengan incidencia presupuestaria.

XI. SEGURTASUNA ETA OSASUNA	XI. SEGURIDAD Y SALUD
Esku-hartzea hasi baino lehen, esleipendun enpresak Segurtasun eta Osasun Plana gauzatu beharko du proiektuan datorren Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana oinarri harturik. Dokumentu horretan jasotako aztertu, garatu eta ziurtatu beharko du, lanen ezaugarriei eta hauek gauzatzeko proposatutako metodologiei erantzunez.	Con carácter previo al inicio de la intervención, la empresa adjudicataria deberá ejecutar el Plan de Seguridad y Salud en base al Estudio Básico de Seguridad y Salud incluido en el proyecto. Deberá analizar, desarrollar y certificar lo recogido en dicho documento, respondiendo a las características de los trabajos y a las metodologías propuestas para su ejecución.
Esleipendun enpresak indarrean dagoen 1627/97 Errege Dekretuak jasotako gutxieneko segurtasun eta osasun betebeharrak bete beharko ditu.	La empresa adjudicataria deberá cumplir los requisitos mínimos de seguridad y salud establecidos en el Real Decreto 1627/97 en vigor.
XII. HONDAKINEN KUDEAKETA	**XII. GESTION DE RESIDUOS**
Esleipendun enpresak egin beharrezko esku-hartzean sortutako hondakinak modu egokian kudeatu ahal izateko dagokion Hondakinen Kudeaketa Plana idatzi beharko du. Plan honek jasotzen duena esleipendun enpresak zein honek azpikontratutako enpresa edo langile guztiek bete beharko dute.	La empresa adjudicataria deberá redactar el correspondiente Plan de Gestión de Residuos para la correcta gestión de los residuos generados en la intervención a realizar. Lo recogido en este Plan deberá ser cumplimentado tanto por la empresa adjudicataria como por todas las empresas o trabajadores subcontratados por ésta.
Esleipendun enpresak indarrean dagoen 105/2008 Errege Dekretuak eta 112/2012 Dekretuak jasotako hondakinak sortu eta kudeatzeko araudia bete beharko du.	La empresa adjudicataria deberá cumplir la normativa de producción y gestión de residuos establecida en el vigente Real Decreto 105/2008 y en el Decreto 112/2012.

Sinatzailea: **Firmante:**	UDAL ARKITEKTOA. Haritz Iraola Urbieta
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Nahi izanez gero azpialdeko bilagailua interneten sartuz dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke. Este documento ha sido firmado electrónicamente. Su autenticidad puede ser contrastada en internet mediante el siguiente localizador **https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/28/AAAA1STD4.XCxb**